

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

2018ko udal aurrekontuko 2/2018 kredituak aldatzeko espedientea. Behin betiko onarpena

Udalbatzak, 2018ko ekainaren 21eko osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea 2/2018 kredituak aldatzeko espedienteari. Kreditu hori gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin positiboaren kontura finantzatuta dago.

Espedientearen hasierako onarpena jendaurrean erakusteko epea igaro eta erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko bihurtu da, otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuenak, 15.1 artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritz.

Otsailaren 9ko 3/2004 Foru Agindu horrek 15.3 artikuluan xedatutakoa betetzeko, osorik argitaratzen da behin betikoa bihurtu den erabakiaren xedapen zatia, eta argitaratzen denetik aurrera sartuko da indarrean.

2/2018 AURREKONTUAREN ALDAKETA

(.../...) Aho batez ERABAKITZEN DA

LEHENENGOA. Hasierako onarpena ematea 2/2018 kredituak aldatzeko espedienteari, kreditua gehitzeko moldean; aurreko ekitaldiko likidazioa eginda ateratzen den diruzaintzako gerakin likidoaren kontura finantzatuko da, Alkatetzaren 2018ko ekainaren 19ko memorian dauden eta behean azaltzen diren xehetasunen arabera:

Gastu aplikazioen gehikuntzak

APLIKAZIOA		AZALPENA	HASIERAKO KREDITUAK	APARTEKO KREDITUA	AMAIERAKO KREDITUAK
PROGRAMA	EKONOMIKOA				
454	210	Bideak	10.000,00	15.000,00	25.000,00
454	601	Bideak	15.000,00	5.000,00	20.000,00
GUZTIRA			25.000,00	20.000,00	45.000,00

APLIKAZIO EKONOMIKOA			AZALPENA	EUROAK
KAP.	ART.	KONTZ.		
8	7	001	Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin positiboa	20.000,00
DIRU SARRERAK GUZTIRA				20.000,00

BIGARRENA. Espediente hau jendaurrean jartzea hamabost egun baliodunetz, iragarkia ALHAOn eta Udalaren iragarki taulan argitaratu ondoren, udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Jendaurreko aldian erabaki honen aurka erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartu dela ulertuko da, eta otsailaren 9ko 3/2004 Foru Aginduak, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuenak, 16. artikuluan xedatutakoa bete ondoren jarriko da indarrean. Erreklamazioaren bat aurkezten bada, udalbatzak hilabeteko epea izango du ebatzete. Aipatutako kredituak aldatzeko espediente bakoitza behin betiko onartzeko erabakiaren aurka, interesdunek administrazioarekiko auzi errekurtsua jar dezakete zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Lapuebla de Labarca, 2018ko irailaren 10a

Alkatea

MAIDER MURILLO TREVIÑO